

Arizkun

N-121B errepidea, KP: 60,000



Gunearen deskribapena

Gisulabe zahar bat aprobezatuz, atsedenleku hori egin zen errepideko ezkerreko aldean. Lorategi eremuan, tamaina handiko zuhaitzak ditu, bankudun mahaiak eta osasun bermerik gabeko ur-iturria. Elbete eta Arizkun herrien artean dago, eta Baztango etxalde tipikoak ditu inguruan. Horrez gain, Auza mendi ederra ere ageri da bertatik.

Aparkaleku txiki bat du, eta udan freskotasun handia ematen dion erreka txiki batetik oso hurbil dago.